

BURDINAZKO MUNSTROA

Bazen behin Altsasuko Baratzekobide plaza, han, lorategi bat zegoen eta bi zuhaitz zahar. Bertan, bi txori familia bizi ziren, Sarasetearrak eta Goikotxeatarrak.

Lehenengoa, txantxangorri familia bat zen, Amona Mirentxu, ama, aita eta bi seme: Miko eta Moko. Hauek, musikariak, oso onak, alaiak eta lasaiak ziren. Ondoan, Goikoetxea familia bizi zen, aitona Dionisio, Amona Maritxu, aita, ama eta lau seme-alaba. Hauek, okilak ziren, zurginak, oso langileak, indartsuak eta urduriak ziren. Bi familia hauek oso lagunak ziren.

Ekainaren 24ean plazan, batzuk bakailaoa afaltzen ari ziren, beste batzuk, dantzatzen ari ziren. Bat-batean, bele bat agertu zen aurpegi seriorekin eta gutun bat eman zien. Aitona Dionisiok, irakurri zuen eta oso triste jarri zen eta haserretu zen. "Gelditu musika! Haiek, zuhaitzak bota nahi dituzte burdinazko munstroaren etxea egiteko", esan zuen aitonak.

Denak, amona Mirentxuren inguruan eseri ziren eta negarrez, orain dela urte asko, etxeak bota zituztela burdinazko munstroaren etxea egiteko, kontatu zuen. Denak, asko haserretu ziren, oraingoan ez zutela gertatzen utziko.

Auzokide guztiak elkartu ziren borrokatzeko. Egunero, 5etan manifestazioa egiten zuten Baratzekobide Plazan eta martxa egiten zuten Gaztelura. Egun batean, nekatuta erabaki zuten auzolana egitea makina leku lasai batera bizitzera joateko eta pentsatu zuten Isasia Poligonora eramatea, han bagoi bat baitzegoen oso bakarrik.

Burdinazko munstroari ideia gustatu zitzaion eta Isasiara joan zen.

Munstroa: Zein bagoi polita!

Bagoia: Kaixo!

Munstroa: Nor zara zu?

Bagoia: Ni Lorea naiz. Eta nor zara zu?

Munstroa: Ni Makinote naiz.

Bagoia: Zer zara zu?

Munstroa: Ez dakit, eta zu?

Bagoia: Ni taberna bat naiz.

Munstroa: A! Orduan, ni Txikipark bat izango naiz.

A! Orduan hemen ongi biziko gara!



Auzokide guztiak lanean jarri ziren. Ospatzeko, denak jai bat egin zuten eta denak oso alai eta hemendik aurrea Altsasun oso pozik bizi ziren.

Hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Altsasuko plazan. [^]